Antsoain BIM Ansoáin

Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria

Boletín de información Municipal de Ansoáin

2022 Apirila - Abril • nº 28. alea









## GOGOTSU!!

Eguneko Zentro Komunitarioan (garai bateko Gizarte Etxea) adinekoak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko proiektua jarri dugu abian, pertsona horien zahartze aktibo osasungarria sustatzeko asmoz, haien gaitasun funtzionala ahalik eta gehien sustatze aldera eta, horrela, ahalik eta luzaroen aktiboak, autonomoak eta beregainak izan daitezen.

Horretarako, hainbat proposamen garatzen ari gara, prozesu parte-hartzaile komunitario eta sozial baten bidez. Helburua da jendeak nabarmen parte-hartzea, jendearen arteko harremanak indartzeko eta, ondorioz, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Abendu eta urtarrilean, Nerea Cía dinamizatzaile soziokulturala hainbat aldiz bildu da Eguneko Zentro Komunitarioa erabiltzen duten talde eta pertsonekin, proiektuaren proposamena aurkezteko eta taldeen nahiz gizabanakoen ekarpenak jasotzeko. Aldi berean, etengabeko lan koordinatua egiten da Ezkaba Erretiratuen Elkarteko batzordearekin, denon artean jarduerak abiarazteko, Antsoaingo adinekoen eta

Jarraitzen du...

ANTSOAIN, ZAINTZEN DUEN HERRIA · ANSOÁIN, COMUNIDAD QUE CUIDA

## ¡¡CON GANAS!!

Desde el proyecto de personas mayores y con diversidad funcional del CENTRO DIURNO COMUNITARIO (antiguo Centro Cívico) estamos trabajando con el objetivo de promover entre ellas, un envejecimiento activo saludable que favorezca la máxima capacidad funcional de manera que las personas permanezcan activas, autónomas e independientes durante el máximo tiempo posible.

Para ello, estamos desarrollando diferentes propuestas desde un proceso participativo comunitario y social, con el objetivo de promover una participación significativa, que potencie las relaciones sociales y el sentimiento de pertenencia, y por tanto contribuya a mejorar su calidad de vida.

Durante los meses de diciembre y enero, la dinamizadora sociocultural Nerea Cía mantuvo reuniones con varios grupos y personas que hacen uso del CENTRO DIURNO COMUNITARIO, para presentarles la propuesta del proyecto y recoger las iniciativas tanto colectivas como individuales que fueron surgiendo. A su vez, se desarrolla un trabajo coordinado y constante con La Junta de la Asociación de Jubilados y Jubiladas Ezkaba para poner en marcha actividades de manera conjunta que repercutan en el bienestar de todas las personas mayores y con diversidad funcional de Ansoáin.

Continúa....

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2022ko ekaina – Próximo BIM: junio 2022)

dibertsitate funtzionala duten pertsonen ongizatea sustatze aldera.

Prozesu parte-hartzaile horretatik sortu dira abian jarri diren hainbat ekimen, eta guztietan ere parte-hartze maila handia da.

Gaur egun, sevillanak eta kriskitinak irakasteko tailerra dugu martxan, Ramona Contreras Amezcuak emanik; betea dago, 17 lagun, guztira. Halaber, 43 lagun ari dira lerro-dantzari buruzko bi ikastarotan, Milagros Lambertok eta Esther Villaroel Unzuék emanik.

Era berean, bi liburu aurkeztu dira; batetik, “Yo vieja”, Ana Freixasek idatzia, eta bestetik, “Ni casadas ni sepultadas Las viudas: una historia de resistencia femenina”, Amaia Nausia Pimoulierrek ondua.

Jarduera artistikoei dagokienez, liburu tolestuaren teknikari buruzko ikastaro bat egin zen.

Apirilean, lan artistikoa egiten jarraituko dugu, “Zimurra ederra da” proiektuaren bidez, udal aldizkari honetan bertan aipatu duguna.

Beraz, zatozte gure jardueretan parte hartzera, hala nola ibilaldi osasungarrietan, asteazkenero, 12:00etatik 13:15era, Eguneko Zentro Komunitariotik abiaturik.

Askoz ere gauza gehiago ditugu; adibidez, jarduera berriak, talde jolasak, bisita gidatuak, belaunaldien arteko topaketak Harrobiko gazteekin eta beste. Beraz, erne ibili. Informazioa eskura duzue sare sozialetan, udal webgunean, bai eta Zentro Komunitarioan paratutako informazio-taula berrian ere.

De ese proceso participativo, nacen varias de las iniciativas que se han puesto en marcha con un alto grado de participación.

Actualmente se está realizando un Taller de Sevillanas y Castañuelas que imparte Ramona Contreras Amezcua y está al completo con 17 personas; y dos cursos de Bailes en Línea, con un total de 43 personas participantes y que son impartidos por Milagros Lamberto y Esther Villaroel Unzué.

Se han realizado también dos presentaciones de libros “Yo vieja” de Ana Freixas y “Ni casadas ni sepultadas Las viudas: una historia de resistencia femenina” de Amaia Nausia Pimoulier.

En cuanto a actividades artísticas se realizó un taller de la técnica del libro plegado.

En abril, continuamos con el trabajo artístico a través del proyecto “La arruga es bella”, que se menciona en este mismo BIM.

Os animamos a participar en las distintas actividades abiertas como son los paseos saludables los **miércoles de 12:00 a 13:15 h.** con salida desde el CENTRO DIURNO COMUNITARIO.

Atención a nuestras nuevas actividades, juegos colectivos, visitas guiadas, encuentros intergeneracionales con jóvenes de Harrobi, y muchas cosas más. Podrás encontrar la información en redes sociales, página web del Ayuntamiento y el nuevo tablón informativo instalado en el propio centro.

## HAURREN PARKEETAKO LURZORUAK ALDATU DIRA, ETA RAFAEL ALBERTI PLAZAKO PARKEEN ESTALKIAREN ERAIKUNTZA ESLEITU DA





Hainbat hilabetez luzatu den prozesu baten ondoren, Antsoaingo haurren parkeetako lurzoruen aldaketa bukatu da, eta parkeetako osagai askoren konponketak ere egin dira. Rafael Alberti plazako hiru parkeetako biri estalkia jartzea aurreikusi da orain. Datozen asteetan eginen diren obrak Maderplay enpresari esleitu zaizkio 127.846,54 euroren truke, eta lan horien ostean, Antsoainek haurrentzako bi gune estali izanen ditu, bere garaian Zelaia parkean eraiki zenaz gain.

## FINALIZADA LA SUSTITUCIÓN DE LOS SUELOS DE LOS PARQUES INFANTILES Y ADJUDICADA LA CONSTRUCCIÓN DE LA NUEVA CUBIERTA PARA LOS DE RAFAEL ALBERTI

Tras un proceso que se ha prolongado durante varios meses, ha finalizado la sustitución de los suelos de los parques infantiles de Ansoáin, así como la restauración de muchos de los elementos que los componen. La nueva actuación prevista ahora es la colocación de una nueva cubierta para dos de los tres parques infantiles de la plaza Rafael Alberti, cuyas obras, que se van a realizar durante las próximas semanas, han sido adjudicadas a la empresa Maderplay por un importe de 127.846,54 euros. De esta manera, Ansoáin pasará a disponer de dos zonas infantiles cubiertas, tras la colocación en su día de la que se construyó en el parque Zelaia.



## HAUR IGERIKETA: IKASTARO TRINKOAK MAIATZA-EKAINA



Urtero bezala, Idakik haurrendako igeriketa ikastaro trinkoak eskaini ditu maiatz eta ekainean. Aukera ona da haurrak uretan moldatzen hasteko edota haien igeriketa maila hobetzeko.

Haurrendako igeriketa ikastaro trinkoek hiru asteko iraupena dute, astelehenetik ostiralera, eta saioak ordu erdikoak dira.

PREZIOAK:
Erroldatuak eta abonatuak: 6€
Erroldatuak eta abonatu gabeak: 70€
Erroldatu gabeak eta abonatuak: 80€
Abonatu gabeak eta erroldatu gabeak: 95€

1. TRINKOA: maiatzaren 23tik ekainaren 10era
   Aurreinskripzioa: maiatzaren 1etik 8ra
   Izen-ematea eta ordainketa: maiatzaren 16tik 22ra

2. TRINKOA: ekainaren 13tik uztailaren 1era
   Aurreinskripzioa maiatzaren 23tik 29ra
   Izen-ematea eta ordainketa: ekainaren 6tik 12ra.

**Argibideak: www.idaki.org**

## NATACIÓN INFANTIL: CURSILLOS INTENSIVOS MAYO-JUNIO

Como todos los años, Idaki ofrece cursillos de natación infantil intensivos en los meses de mayo y junio siendo una buena oportunidad para que el público infantil se introduzca en el medio acuático o mejore su nivel de natación.

Estos intensivos de natación infantil tienen una duración de tres semanas con clases de lunes a viernes y sesiones de media hora de duración.

PRECIOS:
Personas empadronadas y abonadas: 6€
Personas empadronadas y no abonadas: 70€
Personas no empadronadas y abonadas: 80€
Personas no abonadas y no empadronadas: 95€

1º INTENSIVO: Del 23 de mayo al 10 de junio
   Pre-inscripción: del 1 al 8 de mayo
   Inscripción y pago: del 16 al 22 de mayo
2º INTENSIVO: del 13 de junio al 1 de julio
   Pre-inscripción : del 23 al 29 de mayo
   Inscripción y pago: del 6 al 12 de junio

**Más información en www.idaki.org**



## APARKATZEA ANTSOAINEN ARAUTZEKO BEHIN BETIKO FASEA



Jakina den bezala, Antsoaingo Udalak behin-behineko araudi bat jarri zuen abian, Iruñeko Udalak gure udalerriko auzo mugakideetan aparkatzeko ezarri zuen araudiaren ondorioei aurre egiteko.

Hasierako fasean, trafikoari buruzko ordenantza berri bat egin eta onetsi da aparkatzeari buruzko araudia jasotzeko. Halaber, ibilgailuak aparkatzeko txartela arautzen duen ordenantza fiskala egin eta onetsi da. Horrenbestez, ibilgailu baimendu guztiek agerian eraman beharko dute txartela, aurreko kristalean.

### ZERGATIK?

Kontuan hartu behar da, irtenbideak errazago eta arinago martxan jartze aldera, Antsoainen erregistraturiko ibilgailu guztiak fitxategi berean sarturik egon direla behin-behineko fasean, baldin eta autoen jabeak gure udalerrian erroldatuta bazeuden. Bada, horiek guztiek hirigunean aparkatzeko baimena izan dute, garajeko plaza izan edo ez.

Behin betiko arauketa abian jartzen denetik aurrera, baimena espresuki eskatu beharko da, eta fitxategi bakarra eginen da aurkezten eta baimentzen diren eskaera guztiak biltzeko. Dena den, fitxategian ez dira sartuko ibilgailua hirigunean ordutegi murriztuan aparkatzeko baimena eskatu nahi ez dutenak, dela garajeko plaza dutelako, dela beste edozein arrazoi dela medio.

### ESKAERAK AURKEZTEKO AURREIKUSI DEN EGUTEGIA

Eskaerak aurkezteko epe bat ezarriko da; zehazki, apirilaren bukaeran hasi eta maiatzeko egun gehienetan ere egonen da zabalik.

### HERRITARRENDAKO INFORMAZIOA

Udalak etxez etxe banatuko du informazioa, bai eta eskura dituen bitarteko guztiak erabiliz ere. Zehatz-mehatz azalduko ditu eskaerak aurkezteko datak, bitartekoak, lekuak, ordainbidea, behin-behineko baimenak eskatzeko aukera, bai eta bigarren fasearekin lotutako beste galdera eta erantzun batzuk ere.

### APARKATZE TASA

Hirigunean ordutegi murriztuan aparkatzea baimentzen duen txartelaren prezioa 25 euro da urteko. Horretarako, kontu-hartzailetzak tasa hori justifikatzeko txosten bat egin du, zehatz-mehatz azalduta zer kostu duten aparkatzearen araudia abian

Jarraitzen du...

## FASE DEFINITIVA DE REGULACIÓN DEL APARCAMIENTO EN ANSOÁIN

Como es sabido, el Ayuntamiento de Ansoáin puso en marcha una regulación provisional para hacer frente a las consecuencias de la regulación del aparcamiento instaurada por el consistorio pamplonés en sus barrios limítrofes con nuestro municipio.

Durante esa primera fase inicial se han elaborado y aprobado una nueva ordenanza de tráfico que recoge la normativa reguladora del aparcamiento y una ordenanza fiscal que regula el precio de la tarjeta de aparcamiento que todos los vehículos autorizados deberán portar de manera visible en su luna delantera.

### ¿POR QUÉ?

Hay que tener en cuenta que, para facilitar y agilizar la puesta en marcha de las soluciones implantadas, durante la fase provisional, todos los vehículos registrados en Ansoáin cuya propietaria o propietario estuviese empadronado en el municipio formaban parte del mismo fichero y tenían autorización para estacionar en el casco urbano, independientemente de que tuviesen plaza de garaje o no.

A partir de la puesta en marcha de la regulación definitiva, la autorización deberá solicitarse expresamente, de tal manera que se elaborará un fichero sólo con las solicitudes presentadas y autorizadas, quedando excluido del mismo aquellas personas que, bien porque disponen de plaza de garaje o por cualquier otro motivo, no deseen solicitar autorización para aparcar en el casco urbano durante el horario restringido.

### CALENDARIO DE SOLICITUDES PREVISTO

Se habilitará un periodo de presentación de solicitudes que comenzará la última semana de abril y se prolongará durante parte del mes de mayo.

### INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

El Ayuntamiento informará mediante un buzoneo masivo y a través de todos los medios a su alcance de todo lo concerniente a fechas, mecanismos, lugares habilitados para la presentación de solicitudes, forma de pago, posibilidad de solicitar autorizaciones provisionales y otras preguntas y respuestas relacionadas con esta segunda fase. Se habilitará también un número de teléfono para consultas.

### TASA DE APARCAMIENTO

El precio de la tarjeta que autoriza a aparcar en el casco urbano durante el horario restringido se ha establecido en 25 euros anuales, que están justificados en un informe de intervención que detalla los costes de la puesta en marcha, amortización, mantenimiento

Continúa....

jartzeak, amortizatzeak, mantentze-lanek eta kontrolak. Araudia herritarrek parte hartutako prozesuaren ondorioa izan da.

Gutxienez diru kopuru hori behar da gastuak berdintzeko. Hau da, tasak ez du dirua biltzeko inolako xederik eta arestian aipaturiko txostenean ageri diren gastuei aurre egite hutserako da. Gastuak, guztira, 177.381,22 euro dira urteko.

### LERROAK MARGOTZEA

Seinale bereizgarri bertikalak paratu ziren, ibilgailuak aparkatzeko behin-behineko fasea hasi ahal izateko. Dena den, behin betiko arauketara igaro aurreko azken asteotan, aparkatze-lerroak berdez margotu dira, horixe baita eremu arautuaren ezaugarria.

### BESTELAKO JARDUKETAK

Bestelako jarduketak ere aurreikusita daude; adibidez, egungoak bezalako ZEL eremu gehiago sortzea Lapurbide eta Arturo Campion karriketan, eta jarduketa batzuk ere Jimeno Jurío kalean, egun ilaran aparkatzen baita eta bateria moldera aldatuko da. Halaber, zebra-pasabide batzuk hobetuko dira, Iñaki Ochoa de Olza institutuirantz eta Doña Mayor de Navarra ikastetxerantz doazen eskola-ibilbideen segurtasuna handitzeko.

y control de la regulación del aparcamiento que se ha implantado tras el proceso participativo realizado.

Esta cantidad es la mínima posible para cubrir los gastos generados y no tiene, por lo tanto, ningún afán recaudatorio más allá de hacer frente a esos gastos detallados en el informe antes citado, que ascienden a 177.381,22 euros anuales.

### PINTADO DE LÍNEAS

Para poder iniciar la fase provisional de regulación del aparcamiento se colocaron señales distintivas verticales. Como transición a esta fase definitiva de regulación, durante las últimas semanas se ha procedido al pintado de las líneas de aparcamiento en color verde, distintivo de la zona regulada.

### OTRAS ACTUACIONES

Están previstas también otras actuaciones, por ejemplo, la creación de más zonas ZEL como las ya existentes en calle Lapurbide y calle Arturo Campión, así como algunas actuaciones en la calle Jimeno Jurío que pretenden transformar los actuales aparcamientos en línea a batería y mejorar algunos pasos de cebra para aumentar la seguridad de los recorridos escolares hacia el instituto Iñaki Ochoa de Olza y el colegio Doña Mayor de Navarra.

## HARROBI GAZTELEKUA



Kaixo Antsoain!

Primeran pasa genuen inauterietako asteburuan. Ostiralean, Harrowarts-en jende pila ibili ginen joko magikoetan lehiatzen eta, larunbatean, txokolatada egin genuen Lapurbide plazan aurpegi margotzaileekin eta korrikaren pintxopotearekin batera. Giro paregabea izan genuen!



Bestetik, Gaztehandiko taldeak proiektu polita jarri dugu martxan Antsoaingo Eguneko Zentro Komunitarioan parte hartzen duten pertsonekin batera. Apirilaren 1ean beraiekin batera arratsaldea pasa genuen eta Gaztehandiko partaideek Harrobin egindako xaboi ekologiko zoragarriak oparitu zizkieten.

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoáin

## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

Hola Ansoáin!

Por un lado, deciros que lo pasamos genial el fin de semana del carnaval. El viernes estuvimos muchísima gente compitiendo en los juegos mágicos de Harrowarts y el sábado estuvimos de chocolatada en la plaza Lapurbide junto con el pintacaras y el pintxopote de la korrika. ¡Un ambiente estupendo!

Por otro lado, desde el programa Gaztehandi estamos llevando a cabo un proceso muy chulo en coordinación con el Centro Diurno Comunitario de Ansoáin y de las personas mayores que allí participan. El día 1 de abril estuvimos compartiendo con ellos y ellas un agradable espacio donde el grupo de Gaztehandi les entregó unos maravillosos jabones ecológicos que han estado haciendo en Harrobi.

## KIROL TEKNIKARI BERRIA UDALEAN ETA ARDURADUN BERRIA HIRIGINTZA ALORREAN



Azken asteotan, bi pertsona sartu dira udal organigraman. Batetik, Alfredo Osés kirol teknikari berria, Juan Carlos Martínez ordezteko hasitako prozesuaren ondorioz. Orain arteko kirol teknikariak lanbide erronka berriari heldu dio eta zorterik onena opa diogu. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu hainbeste urtez gure udalerrian egindako lanagatik.

Bestetik, eta hautapen-prozesuaren ondorioz ere, Beatriz Caballero da hirigintza alorreko arduradun berria. Postu hori sortu da, udalak hirigintza arloko erronkei hobeki erantzuteko.

Horrenbestez, Alfredori eta Beatrizi ahalik eta esperientziarik onena izatea opa diegu, gure herrian, Antsoainen, izanen dituzten eginkizun berrietan.

## NUEVO TÉCNICO MUNICIPAL DE DEPORTES Y NUEVA RESPONSABLE DEL ÁREA DE URBANISMO

En las últimas semanas hemos sumado dos nuevas personas al organigrama municipal. Por un lado, se ha incorporado Alfredo Osés como técnico de Deportes, tras el proceso iniciado para sustituir a Juan Carlos Martínez en dicha área. Este último ha iniciado un nuevo reto profesional para el que le deseamos la mejor de las suertes, a la vez que le agradecemos el trabajo que ha venido desarrollando en nuestro municipio durante tantos años.

Por otro lado, y también tras el proceso de selección realizado para ello, Beatriz Caballero es ya la nueva responsable del área de Urbanismo, una figura creada para mejorar la respuesta del Ayuntamiento a los retos que plantea esa área de trabajo.

Deseamos a Alfredo y a Beatriz la mejor de las experiencias posibles en sus nuevos cometidos en Ansoáin, nuestro pueblo.

## IÑAKI OCHOA DE OLZA AGENDA 2030 PROIEKTUEN BIDEZ LANTZEN





Ikasturte honetan, DBHko 1. eta 2. mailetan, genero berdintasuna eta klima aldaketa lantzen ari gara, proiektuen metodologiaren bidez.

Lan egiteko modu honi esker, funtsezko gaitasunak landu daitezke, elkarlana eta ikasleen arteko elkarreragina sustatu, ekimena eta autonomia bultzatu eta gelako lana benetako munduarekin lotu.

Curriculuma garatzen dugun heinean, hainbat irakasgaitan (matematika, hizkuntza, teknologia...) ikuspegi globaleko jarduerak jorratzen ditugu, munduko arazo askori erreferentzia egiten dietenak. Klima-aldaketa, pertsonen arteko desberdintasunak edo Ipar - Hego desberdintasunak eta gisako gaiak lantzen ditugu, herritartasun globala eta ikasleen arteko pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Proiektu honen azken emaitza gisa, irudi interaktibo bat garatuko dugu, ikasleek irakasgai bakoitzean egingo dituzten lanen bideoak, irudiak, aurkezpenak, audioak... erakutsiko dituelarik. Irudi horiek QR kode bihurtuko ditugu eta Idakin maiatzaren 9tik 13ra egingo den erakusketa batean erakutsiko ditugu. Bertara hurbiltzen diren guztiek ikasle-taldeen lanak ikusi ahal izango dituzte, QRa mugikorrarekin irakurrita.

## IÑAKI OCHOA DE OLZA TRABAJANDO LA AGENDA 2030 POR PROYECTOS

Durante este curso en 1º y 2º ESO estamos trabajando la igualdad de género y acción por el clima mediante la metodología de proyectos.

Esta forma de trabajo permite trabajar las competencias clave, favorecer el trabajo colaborativo y promover la interacción entre el alumnado, potenciar la iniciativa y la autonomía, así como, relacionar el trabajo en el aula con el mundo real.

Desarrollamos el currículum en las distintas materias (matemáticas, lengua, tecnología,...) a la vez que incluimos actividades con perspectiva global, que hacen referencia a muchos de los problemas mundiales. Se trata de trabajar cuestiones tales como el cambio climático, las diferencias entre personas o las desigualdades norte-sur, para promover una ciudadanía global y el pensamiento crítico entre el alumnado.

Como producto final de este proyecto vamos a desarrollar una imagen interactiva, en la que enlazaremos videos, imágenes, presentaciones, audios,... de los distintos trabajos que el alumnado va a ir produciendo en las diferentes materias. Estas imágenes las convertiremos en un código QR, que mostraremos en una exposición que se realizará en Idaki del 9 al 13 de mayo. Todas las personas que allí se acerquen, podrán visualizar el trabajo de los diferentes grupos de alumnos/as con solo leer el QR con su móvil.

## ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLA




Dena gerta daitekeen lekura gonbidatzen zaitugu:

Antsoaingo Udal Musika Eskola!

Hiru urtetik aurrera, musika ezagutzen hasiko gara jolasaren eta jakin-minaren bidez, abestien bidez abestuko dugu eta istorioak kontatuko ditugu abesbatzan, instrumentuak jotzen ikasiko dugu eta musika taldeetan partekatuko dugu rocka, jazza, popa, klasikoa... Zatoz musika gure eskolan martxan jartzera!

Matrikula berriak: maiatzaren 9tik 27ra
Matrikula berritzeko, maiatzaren 9tik 20ra

Jarraitu gure jarduera zure mugikorrarekin QR hau eskaneatuz.

## ESCUELA DE MUSICA DE ANSOÁIN

Te invitamos al lugar donde todo puede pasar: ¡La Escuela Municipal de Música de Ansoáin!

Comenzamos a descubrir la música desde los 3 años a través del juego y la curiosidad, cantamos y contamos historias a través de canciones en coro, aprendemos a tocar los instrumentos y compartimos la música en las agrupaciones tocando rock, jazz, pop, clásica... ¡Ven a poner la música en movimiento en nuestra escuela!

Nuevas matrículas: del 9 al 27 de mayo
Renovación de matrículas del 9 al 20 de mayo

Sigue toda nuestra actividad escaneando estos QR con tu móvil.

## UDALDIKO IGERILEKUAK



Uda hurbiltzen ari da! Eta harekin batera, uretan gustura pulunpatzeko eta Idakiko udako igerilekuetan eguzkia hartzeko gogoa.

2022ko udaldia EKAINAREN 10AN HASI ETA IRAILAREN 11N bukatuko da. Hiru hil horietan, kanpoko igerilekuak goizeko 10etatik arratseko 9etara egonen dira zabalik.

Abonatua izatea da udaz gozatzeko eta Idakik ematen dituen zerbitzu guztiei probetxua ateratzeko aukerarik onena.

Era berean, eguneroko sarreren bidez goza dezakezu udaldia Idakin edo, bestela, udako abonua erosiz.

Horretarako, kontsultatu informazioa **ww.idaki.org** webean edo **948 14 07 82** telefonoaren bidez.

## TEMPORADA DE PISCINAS DE VERANO

¡Se acerca el verano! Y con él las ganas de darse un buen chapuzón y de tomar el sol en las piscinas de verano de Idaki.

Las fechas de la campaña de verano 2022 son del 10 DE JUNIO AL 11 DE SEPTIEMBRE teniendo las piscinas exteriores durante ese periodo un horario de apertura al público de 10 de la mañana a 9 de la noche.

La mejor opción para disfrutar del verano y sacar provecho de todos los servicios que Idaki proporciona es la de abonarse.

También puedes disfrutar de la temporada de verano en Idaki a través de las entradas diarias o adquiriendo un abono de verano.

Para ello, consulta la información en **ww.idaki.org** a través del teléfono **948 14 07 82**.

RECONOCIMIENTOS MEDICOS
CONDUCTORES, ARMAS
AVDA. GUIPUZCOA


Lunes a viernes, de 10:30 a 13:30 y de 17 a 19:30 h. - Sábados de 10:30 a 13:30 h.
Avda. Guipúzcoa, 40, ofic. 7 (Encima de BM). Pamplona
www.reconocimientosmedicos.org
Tel. 948 30 19 85

## BERDINTASUN ZERBITZUA

### TOPAKETA BARATZEAN

Joan den otsailaren 24an, topaketa polita izan genuen Antsoaingo baratzeetan. Hainbat talde elkartu ginen, hala nola Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea, "Errotzen" baratzeko emakumeen taldea eta Nekazaritza ekologikoko erdi mailako zikloko talde bat. Azken talde hori eskolako praktika bat egitera eta intsektu-etxe bat paratzera etorri zen, argazkietan ageri den bezala.

Toki gutxi hartuta, intsektu-hotelek behar diren baldintza naturalak birsortzen dituzte baratzerako onuragarriak diren hainbat intsektu-espezie hartzeko; izan ere, egokiak dira izurriteen kontrol biologikoa egiteko, konposatu kimiko kutsagarriak erabili gabe.





## SERVICIO IGUALDAD

### ENCUENTRO EN LA HUERTA

El pasado 24 de febrero tuvimos un bonito encuentro en las huertas de Ansoáin. Nos juntamos la Asociación de Esclerosis Múltiple de Navarra, el grupo de mujeres de la huerta Errotzen-Enraizando, y un grupo del ciclo de grado medio de Agricultura Ecológica. Este último vino a hacer una práctica de la escuela e instalar una casa de insectos, que podéis ver en las fotos.

Un hotel de insectos recrea, ocupando poco espacio, las condiciones naturales necesarias para albergar distintas especies de insectos beneficiosas para la huerta, de manera que ayudan en el control biológico de las plagas evitando el uso de compuestos químicos contaminantes.

### LIBURUAREN EGUNA: IRAKURRI BERDINTASUNA

Apirilaren 23a **Liburuaren Nazioarteko Eguna** da eta Liburutegitik eta Udaletik irakurzaletasuna sustatu nahi dugu berdintasunean oinarrituta. Horregatik, Udal Liburutegiko FEMINISMOEN atala handitu dugu.

100 liburu berri baino gehiago daude liburutegian; askotariko genero literarioak, hala nola saiakera, eleberria, komikia... adin guztietarako! Zatoz liburutegira gure nobedadeak ezagutzera!



### DÍA DEL LIBRO: LEE IGUALDAD

El 23 de abril es el **Día Internacional del Libro** y desde la Biblioteca y el Ayuntamiento queremos fomentar la lectura en clave de igualdad. Por ello, hemos aumentado la sección FEMINISMOS de la Biblioteca municipal.

Hay más de 100 nuevos títulos en la biblioteca con diversidad de géneros literarios, como ensayo, novela, cómic... para todas las edades. ¡Acércate a la biblioteca a conocer nuestras novedades!




## EZKABA MENDIKO GOTORLEKUKO PRESO BATEN GORPUZKINAK ATERA DITUZTE LURPETIK. ANTSOAINGO HILERRIAREN ONDOAN LURPERATUA ZEGOEN





Joan den martxoaren 7an, Txinparta Elkartea - Memoria Kolektiborako Sareak proposaturik, prospekzioa egin zen Antsoaingo hilerriaren kanpoaldean eta hilerriko horma ondoan pertsona baten gorpuzkinak aurkitu ziren lurperaturik. Ezaugarriak ikusirik eta aurrez bildutako ahozko testigantzak kontuan harturik, esan daiteke gure hilerrian ehortzitako 17 presoetako bat dela, guztiak ere Ezkaba mendiko Gotorlekukoak. Gainerako hamaseien gorpuzkinak hilerri barnean omen daude. Guztiei ere aitortza egin zaie Txinparta Elkarteak 2010eko maiatzaren 22an hilerri barnean paratutako xaflan (1938ko ihesaldiaren urtemuga). Udala elkarlanean aritu zen, horma eroriak konpondu eta xaflari eusten dion piramidea jarri baitzuen.

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak aritu ziren presoaren gorpuzkinak ateratzen, joan den martxoaren 15ean. Bertan izan ziren, besteak beste, Martin Zabalza Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia, José Miguel Gastón Memoriaren Institutuko zuzendaria eta Ander Oroz Antsoaingo alkatea. Gure herriko alkateak, elkarte eta erakundeen talde-lanaren garrantzia nabarmentzeaz gain, belaunaldi gazteak horrelako esperientzietan inplikatzeko beharra azpimarratu zuen.

Alde horretatik, Txinpartako kideez gain, bertan ere izan ziren Ezkaba Ikastetxe Publiko ikasleak eta irakasleak. Teknikarien azalpenak jasotzeaz gain, galdera asko egin eta erantzunak jaso zituzten.

Horra, beraz, beste mugarri bat Memoria Demokratikoa berreskuratzeko ekimenean. Udaleko Bizikidetza Batzordea eta Antsoaingo herritarrok elkarrekin ari gara bide hori jorratzen.

Orain, beste lan bat dator, hots, gorpuzkinak norenak diren jakitea eta senitartekoen eskuetan uztea. Hori gauza ederra litzateke benetan.

## EXHUMACIÓN DE LOS RESTOS DE UN PRESO DEL FUERTE SAN CRISTÓBAL ENTERRADO JUNTO AL CEMENTERIO DE ANSOÁIN

El pasado 7 de marzo, a propuesta de la Asociación Txinparta, Red de Memoria Colectiva, se realizó una prospección en el exterior del cementerio de Ansoáin siendo localizados los restos de un enterramiento junto al muro este del mismo. Por sus características y por los testimonios orales previos, se puede confirmar que corresponde a uno de los 17 presos del Fuerte San Cristóbal que fueron enterrados en nuestro cementerio. Los restos de los otros dieciséis se encontrarían en el interior del mismo. Todos ellos están reconocidos en la placa que la Asociación Txinparta colocó el 22 de mayo de 2010 (aniversario de la fuga de 1938) en el interior del recinto, con la colaboración del Ayuntamiento que arregló los muros derruidos y colocó la pirámide que soporta la placa.

La exhumación de los restos de este preso fue realizada el día 15 de marzo por miembros de la Sociedad de Ciencias Aranzadi con presencia del Director General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos, Martín Zabalza, el Director del Instituto de la Memoria, José Miguel Gastón y el Alcalde de Ansoáin, Ander Oroz, que subrayó la importancia del trabajo colectivo de asociaciones e instituciones y la necesidad de implicar a las generaciones más jóvenes en estas experiencias.

En este sentido, miembros de Txinparta, alumnado y profesorado del Colegio Público Ezkaba pudieron compartir esta experiencia y recibir explicaciones del equipo técnico y respuestas a las muchas preguntas que plantearon.

Fue un hito más en el proyecto de recuperación de la Memoria Democrática que la Comisión de Convivencia del Ayuntamiento y la ciudadanía de Ansoáin estamos llevando a cabo.

Se rubricaría el éxito de esta actuación si se lograran identificar los restos y poder entregarlos a sus familiares.



## EUSKARA ZERBITZUA

### BERTSO ESKOLA ABIAN DA

